



AURREKONTU AKORDIOA ESPAINIAKO GOBERNUAREKIN

1. Ezkutu sozial iraunkorra: COVID-19aren eraginez onartu ziren eta gaur-gaurkoz otsailera arte luzatu dauden babes sozialeko neurriak iraunkorrak izango dira legez, baita etxebizitzari eta alokairuei lotutakoak ere. Pandemiaren ondorioz martxan jarritako neurri sozialak egiturazko bihurtu eta eskubide izatera igaroko dira; modu iraunkorren ezarriko dira aurrerantzean, dagozkien legeetan horrela jasota.

- Zehazki, bizitoki alternatibarik gabeko etxegabetzeen debekua eta ekonomikoki egoera zaugarrietan dauden familien alokairu-errentaren ordainketa aldi baterako etetea jasoko du Etxebizitza Legeak tramite parlamentarioan zehar.
- Izaera iraunkorreko mekanismoak eta lege berriak indarrean sartu arte, Espainiako Gobernuak aldi baterako irtenbide bat bermatuko du EH Bildurekin hala adostuta, neurri sozialen iraupena ziurtatzeko asmoz.

2. Konpentsazio funtsa amiantoaren biktimeentzat.

- Amiantoaren biktimei kalte-ordainak emateko 25 milioi euroko konpentsazio funtsa jasoko dute 2022ko aurrekontuek, EH Bilduk aurkeztu eta gobernuarekin adostutako zuzenketa onartu ostean. Euskal Herriko eremu industrialetan zein Estatuko lurraldeetan amiantoaren ondorioz kaltetutako pertsonekin erakundeek zuten zor historikoa kitatzen eta urteetako bidegabekeria arintzen lagunduko du.
- Gehienez ere bi hilabeteko epean, amiantoaren biktimeentzat konpentsazio funtsa sortzeko tramitazioa desblokeatu eta martxan jarriko da Diputatuen Kongresuan.

3. ETB 3 katearen emisioa Nafarroako lurralde osoan.

Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean, ETB 3 katea Nafarroa osoan emititzea ziurtatuko du Espainiako Gobernuak EH Bildurekin lortutako hitzarmenari esker. Emisio hori 2022. urtea amaitu aurretik gauzatuko da. Akordio horri esker, Nafarroako haurrek euskarazko edukiekin hazi, gozatu eta ikasteko aukera edukiko dute, eta, denbora gutxian, errealitate bihurtuko da. Aurrerapauso garrantzitsua euskararen erabilera normalizatu eta sustatzeko bidean.



4. Hizkuntza koofizialetan eginiko ikus-entzunezkoak sustatzeko funtsa.

Euskaraz, galegoz eta katalanez ekoiztako ikus-entzunezkoak babesteko funtsa. 10,5 milioi bideratuko dira 2012an ezabatutako funtsa berreskuratzea eta hizkuntza koofizialetako zinemagintzaren eta ikus-entzunezkoen ekoizpena, banaketa eta sustapena bultzatzera.

5. Nafarroako Foru Poliziako langileen erretiro baldintzak.

Nafarroako Foru Poliziako langileen egoera eta baldintzak beste polizia-kolektibo batzuen erretiro-adinaren koefiziente murriztaileekin parekatuko dira.

6. Inbertsio ekonomikoak eta lurraldeei dagozkienak.

- Pasai-Antxoko (Gipuzkoa) Luzuriaga fabrika eskuratzeko inbertsioa, proiektu kultural bat martxan jartzeko: 6.000.000 €
- Gasteizko hirigunea eta Plazaolako bide berdea lotuko dituen bizikleta-bidearen sorrera, Agurain (Araba) eta Irurtzun (Nafarroa) batuko dituen: 1.000.000 €
- Barakaldoko (Bizkaia) Renfe C1 aldiriko tren-geltokiaren irisgarritasuna hobetzeko lanak, sarbidea errazteko bi igogailu jarrita: 900.000 €
- Euskarazko hedabideen ikus-entzunezko eduki eta baliabideak digitalizatzera bideratutako proiektu berritzailea: 500.000 €
- Lesakako (Nafarroa) trafiko bizia erdigunetik ateratzea ahalbidetuko duen saihesbidea eraikitze proiektua, NA-4000 errepidean: 500.000 €
- Santurtzi eta Bilboko Portuaren artean trenak eragindako eragozpenak txikitze neurriak; Renferen Bilbao-Santurtzi linea igarotzen da bertatik: 350.000 €
- Sestaoko Labe Garaiaren barnealdea birgaitze proiektua taxutzea eta gauzatzea, Bizkaiko aro industrialean eta labe garaietan oinarritutako proiektua abian jarrita: 200.000 €
- Plentziako portuaren eta geltokiko zubiaren arteko pasealekua hobetzeko lanak: 200.000 €
- Burgos-Gasteiz-Iruñea-Zaragoza linean prestazio handiko trenen zirkulaziorako eta trafiko mistorako hobekuntza eta egokitze lanen azterlana: 200.000 €

Guztira: 45.350.000 €